


BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gaur egungo gizartean, Interneta gure eguneroko bizitzaren oinarri bat da. Hori dela eta, sare sozialak eta web-orrialdeak ezinbestekoak dira; beraz, hauen erabilera eta diseinu egokia benetan garrantzitsua da, bezero berriak erakartzeko, baita jadanik dauzkagunekin harremanetan jartzeko eta hauek izan ahal dituzten zalantzak eta kezak argitzeko. Hori gutxi balitz, telefono-zenbaki eta mezu elektronikoko pribatuak edukiko ditugu, harremanetan jartzeko beste forma bat bezala.



Bestalde, banaketa-kanala zuzena izango da: gure zerbitzua kontratatzeke gure bulego propioan nahi duenak informazioa eta laguntza eskuragarri izango ditu. Horretarako, gela berezi bat prestatuko dugu, bezeroen zalantzak eta arazoak konpontzeko, baina bakarrik ordu zehatz batzuen artean: goizeko 10:00etatik 13:00etara.



Zuzena den beste jardura bat zaborraren bilketaz arduratuko diren kamioiak dira, gehienak gureak direnak. Bestalde, beste enpresa batzuk kontratauko ditugu jardura hau aurrera eramaten laguntzeko. Gainera, obrak eta eraikuntza egiteko kamioiak, makineria... propioak dira.